

LANBIDE MEHATXATUAREN MANIFESTUA (2.0 bertsioa)

“Lanbide mehatxatua da kazetari lanbidea. Komunikabideen jabetzaren interesek mehatxatua, mezuen ekoizpena negozio soilera murrizten badu neurrigabeko merkantilismora eramango gaitu-eta. Boteretsuen interesek mehatxatua ere bai (batzuetan kazetarion lana egin dezaten uzten diegun kazetariak baitituzte), edukien hautatzaile eta bermatzaile izaera kentzen digutenean. Azken mehatxua teknologia digitalen eta globalizazioaren eragina da, (garatuta edo ez hain garatuta dagoen munduko) mota guztietako pertsoneri eta taldeei hitzaldi ekoizle bihurtzeko aukera ematen dielako, eta hitzaldi horiek agora publikoan zabaltzeko eta askotariko objektu komunikatibo bereizi gabe, eta berme edo akreditaziorik behar izan gabe, zirkulatzen duten sareko gainerako nabigatzaileen eskura jartzeko aukera ere ematen duelako. Interes bateratze horren ondorioz kalterik handienak dituen herritarra da, hartzailea delako.

Kazetari kurioso, konprometitu, begirada propiodun, (neurri handiagoan edo txikiagoan) aske, zorrotz, zehatz eta deserosoaren, –beste inorenak baino lehen– hartzailearen interesak zaintzen dituen kazetari figura profesionalaren garrantziaren galera konponezina izan daiteke baldin eta lanbideak, oro har, ez badio horri aurre egiten (geure buruari ardurak eskatuz eta geure burua babestuz). Ezinbestekoa da gure proposamenera iraunkortasuna garai digitalera egokitzea, pertsonen libreaki osa dezaten euren iritzia, eta tresna fidagarriak erabiliz. Eta asmo horretan, ziberespaziotik ibiltzen den mota guztietako mezuen eta haien sustatzaile eta zabaltzaileak kamuflatzeko arriskuaren aurrean, kazetaritza-jardueraren emaitza ezinbestekoa bada bakarrik izango da bideragarria, mezu interesgarriak bereizteko eta nahasketa orokorra saihesteko kapaz den neurrian. Etorkizuneko kazetaritza egiaztatzea eta finkatzea, erabilgarritasunean, esperientzian, zintzotasunean, zorrotasunean, eraginkortasunean eta konfiantzan oinarritutako gure kalitatearengatik beharrezkoak izatea da. Geurea den eremua hartzen uzten badugu eta geure sektore profesionala (ezinbestekoa dena komunikazio sistema fidagarri batean) etengabe ahultzea onartzen badugu, gure gizarteentzako planteamendu demokratikoak (neurri handiagoan edo txikiagoan) finkatzearen helburuari ere uko egin beharko diogu.

Kazetari Lanbideari buruzko **Joaquim M. Puyal**en manifestua

LANBIDEA, MEHATXATUA

“Kazetari Lanbidea lanbide mehatxatua da. Komunikabide jabeen interesek mehatxatua, ezen, mezuen ekoizpena negozio soilera murrizten badute, neurrigabeko merkantilismora garamatzate. Boteretsuen interesek mehatxatua ere bai (batzuetan, kazetarion lanak egiten dituzten kazetariak baitituzte), edukien hautatzaile eta bermatzaile izaera ebasten digutenean. Interesen mailu horrek gehien kaltetzen duena hartzailea da. Kazetari kurioso, konprometitu, begirada propiodun, (neurri handi edo txikiagoan) aske, zorrotz, zehatz eta deserosoaren figura profesionalaren garrantziaren galera konponezina izan daiteke baldin eta lanbideak, oro har, ez badio horri aurre egiten (geure buruari ardurak eskatuz eta geure burua babestuz). Aurrera egiten uzten badiegu eta gure segmentu profesionala (ezinbestekoa dena komunikazio sistema fidagarri batean) etengabe ahultzea onartzen badugu, gure gizarteentzako planteamendu demokratikoak (neurri handi edo txikiagoan) finkatzearen helburuari ere uko egin beharko diogu.”

Joaquim M. Puyal

(“Col·legi de Periodistes de Catalunya”-n)
Bartzelona, 2006ko azaroaren 14a